

Ebazpena: R 14/2022

Espedientea: 21/2015

Gasteizen, 2022ko maiatzaren 6an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak –Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatua– honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean GFAk) Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren (aurrerantzean ZAEA) aurrean aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea EVMGESL zergapekoak 2008-2010 sozietateen gaineko zergaren eta 2008-1T/2011 BEZaren kontzeptuengatik Gipuzkoan egindako eragiketen bolumenaren proportziotik eratorritako ordainarazpen-eskumena. Gatazka hori 21/2015 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

I. AURREKARIAK

1.- ZAEAk egiaztapen-jarduerak hasi zituen zergapekoari eta aipatutako kontzeptu eta ekitaldiei dagokienez, partzialki, eta foru-lurraldean eta lurralde

erkidean (hurrenez hurren) egindako eragiketen bolumen proportzioa egiaztatzen soilik iritsi zen.

2.- Egiaztapena amaitzeko, zenbait akta eta horiei dagozkien txostenak – eskumena ez duen administrazioan sartzekoak (A09)– hasi dira. Horietan, ZAEAk uste du zergapekoak lurralde erkidean baino ez dituela eragiketak egiten; izan ere, zera deritzo, eragiketa horiek zergapekoak merkaturatze-jarduerarako erabiltzen dituen baliabide materialak eta giza baliabideak dituen leku berean gauzatzen direla.

3.- Aktak 2014ko azaroaren 18an jakinarazi zitzaizkion GFARI.

Handik 2 hilabetera (2015eko urtarrilaren 16an), GFAk inibizioa eskatu zion ZAEARI, gasa merkaturatzea ondasun gorpuzdun higigarriaren entregatzen jotzekoa dela baitzeritzon, BEZARI buruzko 37/1992 Legearen 8. Bat artikuluari jarraikiz (12/2002 Lege bidez onetsitako Ekonomia Itunaren 14. Bi artikuluan aurreikusitakoaren arabera aplikatzekoa), azken kontsumitzaileari hornitzeko puntuan kokatzen baita, haren kontagailua izaki.

ZAEAk bere eskumena berretsi zuen 2015eko otsailaren 16an jakinarazitako erantzunaren bidez.

4.- 2015eko martxoaren 13an, GFAk gatazka aurkeztu zion Arbitraje Batzordeari.

5.- ZAEARI alegazio-izapidea eman zaio, GFAk defendatutako irizpidearekin bat datorrelako amore eman duelako.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66.Bat.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzordeari eginkizunak esleitzen baitizkio:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan».

2.- Arbitraje Batzorde honek honako hau adierazi du 7/2021 Ebazpenean:

Horrez gain, eta garraioari dagokionez, 57/2012 gatazkari buruzko 2014ko ekainaren 30eko Ebazpenaren bidez, Hitzarmenaren Arbitraje Batzordeak gas-garraioari buruz hau ezarri zuen: «ez du garrantzirik gas-garraioa gasbide-sarearen bidez garraiatzen ote den, zeren eta (...) gasa garraiatzea ez da, berez, erabakigarria garraioa edo espedizioa gauzatzen hasten denean ondasunak daudeneko tokiaren araua aplikatzeko. Zaila da imajinatzea garraiatu gabeko ondasunen existentzia, ekoizten diren leku berean saltzen direnak alde batera uzten baditugu, eta hori ez da ohikoa saltzaileak merkatariak edo “merkaturtzaileak” badira. Kontua ez da hori. Garrantzitsuena da zergapeko egitateari lotutako garraioa izatea,

hau da, zergak ezarrita dituzten ondasunak entregatzeko beharrezkoa den garraioa».

Bada, «merkaturatzaileak» «azken kontsumitzaileei» gasa entregatzeari dagokionez, Hitzarmenaren Arbitraje Batzordeak (57/2012 gatazkari buruz emandako 2014ko ekainaren 30eko Ebazpena) konexio-puntua eskuratzailearen esku jartzeko irizpide berarekin ebatzi du, eta zehaztu du aztergai den kasu zehatzean «gasaren jabetzaren transmisioa hura eroslearen instalazioetan sartzen den unean gertatu dela ulertzen da», hau da, kontagailuan sartzen denean. Horrela, kontagailuan ez da lokalizatzen «kontsumoaren» lekua delako, «eskura jartzea» gertatzen den tokia delako baizik.

Bestalde, berretsi egiten da garraioak konexio-puntu gisa soilik diharduela ondasunak TAltik sartzen edo ateratzen direnean, baina ñabartu egiten da (gasa) garraiatzea ez dela, berez, arau berezia aplikatzeko erabakigarria, baizik eta garrantzitsuena dela zergapeko egitateari lotutako garraioa izatea, hau da, garraioa beharrezkoa izatea zergak ezarrita dituzten ondasunak entregatzeko; ondasun horiek kontsumitzaileari entregatzeari dagokionez, ordea, ez da garrantzitsua izango komertzializatzaileak ondasunak eskuratzearekin loturiko garraioa.

Elektrizitatea entregatzeari dagokionez, Auzitegi Gorenak (2015eko ekainaren 11ko epaia) irizpide berari jarraitzen dio, «*Nabarmena denez merkaturatze-jardueran –XXXXk egiten duenean– kontagailua dagoen lekuan jartzen dela kontsumitzaileen eskura...»*

Beraz, nola doktrinari dagokionez hala jurisprudentziari gagozkiola baketsua den arazo bat da, kontsumitzailearen kontagailua dagoen lekuan lokalizatzen dira gas-entregak.

3.- Demandatuaren amore-emateak, hirugarren interesdunik ez denez bertaratu prozedurara eta ez denez beharrezkoa ebazpenik ematea (jurisprudentzia finkatua baitago), prozeduraren xedea gerora galtzea dakar eta, ondorioz, artxibatzea dagokio.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- GFAk BEZaren 2008-1T/2011 eta sozietateen gaineko zergaren 2008-2010 delakoengatiko ordainarazpen-eskumena (EVMGESLri dagokionez) izateko asmoari ZAEAk amore ematearen ondoriozko prozeduraren xedea galdu izanaren ondoriozko gatazka artxibatzeko ebazpena ematea, Gipuzkoan gauzatutako eragiketen proportzioagatik, kontsumitzailearen kontagailuarentzako arreta-eragiketak lokalizatzeke irizpidearen arabera.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioiko Estatuko Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta EVMGESLri jakinaraztea.